




EAetik atzerrira bidalitako esportazioak murriztu egin ziren lehen hiruhilekoan

ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Milioi euro

1. HIRUHILEKOKO ESPORTAZIOAK ALDAKUNTZA TASA

-%15,9




Eustaten arabera, 2024ko lehen hiruhilekoan atzerrira bidalitako ondasunen guztizko esportazioak %15,9 murriztu ziren. Urte arteko jaitsiera hori oinarritzko efektuak eragin zuen; izan ere, 2023ko lehen hiruhilekoan serie historiko osoko bigarren baliorik gorena jaso zen, baita Aste Santuko egutegi efektuak ere, 2024an martxoan ospatu baitzen gehienbat, eta 2023an apirilean. Hala ere, arrazoi estatistikoak alde batera utzita, EAeko bazkide komertzial nagusien ahulezia eta dinamismorik eza izan zen esportazioen oztopo nagusia.

Izan ere, Europar Batasuneko jardura ekonomikoak urteko lehen hiruhilekoan kemen pixka bat berreskuratu badu ere (%0,5), hori ez da nahikoa izan kanpo merkataritzari bultzada emateko. Izan ere, EAeko esportazioak %14,3 jaitsi dira eremu horretan, bereziki Alemaniako merkatuaren jardura ahularen ondorioz, nahiz eta jaitsierak merkataritza bazkide nagusi guztietara zabaldu diren. Europar Batasunetik kanpo bilakaera are okerragoa izan da, esportazioak %15etik gora murriztu baitira.


ESPORTAZIO EZ-ENERGETIKOAK

Milioi euro



ENERGIAKO ESPORTAZIOAK

Milioi euro



ESPORTAZIOAK HELMUGAREN ARABERA. 2024KO 1. HIRUHILEKOA

Herrialdea	Pisua %	Aldakuntza tasak
Alemania	17,7	-3,1
Frantzia	14,9	-20,2
AEB	6,7	-15,1
Erresuma Batua	6,6	-34,3
Italia	6,2	-8,8
Herbehereak	4,7	-16,6
Belgika	4,6	-2,3
Portugal	3,3	-45,6
Polonia	2,7	-7,6

Sektore guztiek, erregai mineralek izan ezik, honek %0,3ko hazkunde txikia lortu baitzuten, behera egin zuten 2023ko lehen hiruhilekoaren aldean. EAEko atzerrirako salmenten zutabe nagusia diren ibilgailu automobilak izan ziren kaltetuenetakoak, %17,2ko jaitsierarekin, 2023aren amaieran hazi ziren zenbateko berarekin. Ohar positibo gisa, azpimarratu behar da sektore kimikoak, plastikozkoak eta paperezkoak, eta metal arruntek 2023ko azken hiruhilekoan erregistratutakoak baino salmenta handiagoak lortu zituztela.


ESPORTAZIOEN BANAKETA. 2024KO 1. HIRUHILEKOA

Arantzel taldea	Pisua %	Aldakuntza tasak
Ekipamendu ondasunak	47,4	-11,6
Garraio materiala	20,1	-17,8
Makinak eta aparatuak	27,3	-1,5
Ohiko metalak eta manuf.	20,9	-20,1
Nekazaritzako produktuak	6,9	-19,1
Plastikoa eta kautxua	6,7	0,3
Produktu mineral, energetikoak	5,3	-41,1
Produktu kimikoak	3,7	-10,9
Papera	2,5	-14,2

Inportazioek antzeko joera erakutsi zuten, baina tasa txikiagoekin. Kasu horretan ere energiaz bestelako produktuak izan ziren hazkundera galgatu zutenak, energetikoek %6,0 egin baitzuten gora. Horren guztiaren ondorioz, merkataritza saldo osoa positiboa izan zen, 1.021 milioi eurotik gorakoa, aurreko hiruhilekoan erregistratutakoaren erdia, eta energiaren saldoa, berriz, defizitarioa izan zen, 1.296 milioi euro baino gehiagokoa. Horrek guztiak estaldura tasa %115,7ra murriztu zuen.

INPORTAZIOAK GUZTIRA

Miloi euro



Iturria: Eustat.

SALDOA GUZTIRA

Miloi euro

